



FRANCISCO OLARREAGA TELLECHEA jaunak, Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren idazkariak,

ZIURTZATZEN DUT:

2012ko otsailaren 29an izan zen Ingurugirorako Aholku Kontseiluaren bileran, beharrezkoa den quorumarekin eratuta, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko legearen aurreproiektuari buruzko aldeko txostena eman zen, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 13. artikulua xedatzen duen eran. Aktaren eduki literala honako hau da:

5.- LURZORUA EZ KUTSATZEKO ETA KUTSATUTAKOIA GARBITZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA

Lehendakariak Legearen aurreproiektu berri hau aurkeztu du eta esan du bere xedeak honako hauek direla: administrazioaren parte-hartzea arintzea, administrazio-tutoretza hain gogorra saihestea, betiere ingurumen kalitaterako estandarrak mantenduz, eta estatuko hondakinei buruzko legeak aurreikusten dituen hainbat gai birpasatzea. Ainhoa Mintegiri eman dio hitza, zeinek aurreproiektua aurkeztu duen, eta nabarmendu du gaur egun indarrean dagoen arauak inposatzen duen administrazio-sama murriztu behar dela.

Aurkezpena egin ondoren, Blanca Diezek hartu du hitza, eta esan du maximo izaera duen Aurreproiektua dela hau. Baiezatu du Estatuko Hondakinen Lege berria kontuan hartuta Aurreproiektu hau malguagoa izan beharko litzatekeela, estatukoa askoz leunagoa baita, eta ez du arrazoirik aurkitzen hemen neurri zorrotzagoak ezartzeko.

Lehendakariak erantzun du oinarriko legea beteko dela; eta horren garapena EA Eren eskumena dela. Gainera, ez dago ados balorazio horrekin, aurreproiektuak maximo izaera ez duelako. Gonbidatu du bere ekarpenak idatziz egitera, eta baloratuko dira.

Monica Mosok mahaigaineratu du ez daudela aurreikusita testuan Ingurumen Lankidetzako Erakundeak, eta aurreproiektuan txertatzeko eskatu du. Ainhoa Mintegik erantzun dio Erakunde horiek aparteko erregimen baten pean daudela, baina hemen sartzeko aukera azter daitekeela.

Aldeko txostena eman da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.4 artikuluan jasotako ondorioetarako, hemen jasoarazten da akta hori oraindik ere ez dela onartu.

Eta horrela ager dadin eta izan behar dituen ondoreak izan ditzan, egiaztagiri hau eman eta sinatzen dut Gasteizen.

INGURUGIRORAKO AHOLKU KONTSEILUAREN IDAZKARIA

Izpta.: Francisco Olarreaga Tellechea